

LAB, STEILAS, ELA eta CGT-LKN sindikatuok EHUK pairatzen duen azpifinantzaketa salatzen mobilizazio kanpainarekin aurrera egin dugu Donostian

LAB, STEILAS, ELA eta CGT-LKN sindikatuok aurrera egin dugu EHUK pairatzen duen azpifinantzaketa salatzen eta unibertsitate publikorako baliabide gehiago eskatzeko mobilizazio kanpaina. Donostiako campusean bigarren lanuztea egin dugu jarraipen zabalarekin eta kontzentratu gara Carlos Santamarian aurrean.



Eusko Legebiltzarrean 2026ko EAEko aurrekontuak ixtear daudenean ezinbestekoa da berriro ere unibertsitate publikoaren azpifinantzaketa agerian jartzea. Izan ere, egokitutako finantziaketak EHUKo beharrak betetzetik oso urrun egoten jarraituko du, baita USLOk helburu moduan markatutako BPGren % 1etik ere. Azaroaren 20an EHUKo klaustroak unibertsitate publikoaren azpifinantzaketa salatu zuen, eta nabarmen igotzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari.

Unibertsitate publikoarekiko utzikeria interesatua dagoela berretsi behar dugu, EHUK dituen gabezi endemikoei aurre egitea ahalbidetzen ez duena

EHUko irakasle-ikertzaileon soldatek 2008tik hona KPIa igoera dela eta, % 24,3ko galera izan dute, eta horri, 2006an soldatak duintzeko sortu ziren osagarriak gaur egun oraindik izoztuta egotea gehitu behar zaio

Gainera, prekarietate egoera lazgarriak ditugu oraindik ere. Ordezko irakasleak arduraldi osoan kontratatu ahal izateko bidea topatu bada ere, arduraldi partzalean jarduten duten irakasleek 400-800 € kobratzen jarraitzen dute eta, ez zaizkie aitortzen beraien jardunerako ezinbestekoak diren eta egiten dituzten hainbat lan. Horrek guztiak ez du lanbide hau erakaragarria egiten, eta, gero eta irakasle lanpostu gehiago geratzen dira hutsik.

Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen (TEKAZELen) erosahaltenaren kasuan berriz, %18,2 galera jasan du azken 15 urteetan. Gainera, zerbitzu edota unitate askok langile gehiago behar dituztenez, gero eta zailtasun gehiago dago ordezkapenak betetzeko – gogoratu, IRI/TEKAZEL ratioa Europako beste herrialdeetan 2koa den bitartean, EHUn 2,76koa dela – eta horri guztiari, ordainsari-maila baxueneko lanpostuak berrikustea premiazko kontua dela gehitu behar zaio. TEKAZELen lana irakaskuntza, ikerketa eta gainerako aktibitateak era egokian garatzeko ezinbestekoa da, eta horrexegatik da garrantzitsua kolektibo honi ere soldata- eta lan-baldintza duinak bermatzea.

Unibertsitate publikoak euskal jendartearen formazioa, ikerketa edota ezagutzaren transferentziaren beharrei erantzun ahal izateko, lan-baldintza duinak eta plantilla egokia izatea, promozionatzeko eskubidea bermatzea edota langileak zaintzea ezinbestekoak dira.

Era berean, errektoretza taldeari EHUrako beharrezkoa den finantzaketa lortzeko jarrera irmoa exijitzen diogu. EHUko zuzendaritzaren erantzukizuna baita Eusko Jaurlaritzaren aurrean, jendartearen zerbitzura dagoen unibertsitate publikoaren beharrei erantzuten dien finantzazioa kemenez defendatzea.

Aldi berean, hezkuntza unibertsitarioaren eredu elitista sustatuz, alfonbra gorria jartzen die Jaurlaritzak unibertsitate pribatuei. EHUko langileen ahaleginak dira guztion itsasontzi indartsua izan beharko litzatekeen hau ez hondoratzea lortzen dutenak.

Horregatik guztiagatik, LAB, STEILAS, ELA eta CGT/LKN sindikatuok, euskal jendarteak behar duen unibertsitate publikoa beharrezkoa duen finantzaketa bermatzea exijitzen diogu Eusko Jaurlaritzari. Atzo, Leioan, egin genuen lehenengo mobilizazio eguna, gaur, Donostian. Hurrengoak, bihar, 3an Gasteizen eta 4an Eusko Jaurlaritzaren ordezkartzearen aurrean egingo ditugu lanuzteak 11:00etatik 12:00etara, eta, kontzentrazioak 11:15etan izango dira. **EHUko kideok badugu eskaera hau ozen adierazteko garaia!**

Unibertsitate publikoaren defentsan, EHUrako beharrezko finantzaketa bermatu!

LAB - STEILAS - ELA - CGT-LKN